

511 eredua. Hidrokarburoen gaineko zerga. Bideko salmenten prozeduran tasa murriztuarekin bidalitako produktuen emate orrien hileko zerrenda

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Aurkezteko epea

Hilekoa. Informazioa egin den hilabetearen hurrengo hilaren lehendabiziko 5 lanegunen barruan.

Helburua

Fabriketatik, gordailu fiskaletatik edo biltegi fiskaletatik [bideko salmenten prozeduraren bidez](#), aurreko hilean bidalitako produktuen emate orrien zerrenda, produktu horiek zerga bereziei lotuak badira eta zerga murriztua sortarazi badute edo salbuespen bat aplikatu bazaie.

Nork tramitatzen du

- OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
- Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusia
- Zeharkako Zerg., Eskualdaketen gaineko Zerg. eta Ingurumen Tributuak Kudeatzeko Zerbitzua

Nori zuzenduta

Eredu hau bideko salmenten prozedura erabiliz [fabrikatik](#), gordailu fiskaletik, edo [biltegi fiskaletik](#) produktuak igortzen dituztenek aurkeztu behar dute, betiere zerga tasa murriztua sortu bada edo salbuespena aplikatu bazaio.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[511 eredua](#)

Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

Internet bidezko eskaera

2017ko eta hurrengo ekitaldietarako aurkezpenak [ZergaBidea plataformatik](#) egin behar dira edo Gipuzkoatarien 500/503/509/511/551/EMCS [laguntza programaren](#) bitartez.

Jarraian, 2016ko eta aurreko ekitaldietako aurkezpenak egin daitezke, [Gipuzkoataria](#) bete daitekeen pdf artxiboa bidaliz, edo Gipuzkoatarien 500/503/509/511/551/EMCS [laguntza programaren bitartez](#).

Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

Zuzeneko arretarako bulegoak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzua (Errotaburu Pasealekua 2, 20018 - Donostia).

ARAUDIA

[20/1998 Foru Dekretua](#), martxoaren 3koa, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duena.

Zerga Berezien Erregelamenduari buruzko uztailaren 7ko [1165/1995 Errege Dekretua](#).

[113/2009 Foru Agindua](#), otsailaren 16koa, Zerga Berezien eredu jakin batzuk onartu eta zerga horien zenbait kudeaketa arau bateratu eta eguneratu ziren.